

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### KULTURA ETA KIROL SAILA

#### **Foru Gobernu Kontseiluaren 57/2021 Foru Dekretua, abenduaren 28koa. Onestea Gazteriaren Foru Erakundeak sustatutako norgehiagoka bidezko dirulaguntzak emateko oinarri orokorrak**

Ekainaren 8ko Diputatuen Kontseiluaren 26/2010 Foru Dekretuak, Gazteriaren Foru Erakundea erakunde autonomoaren egitura eta funtzionamenduaren Erregelamendua aldatzen duenak, xedatzen du erakunde horrek foru-eskumeneko jarduerak kudeatzen dituela Arabako Lurralde Historikoan gazteriarekin lotuta, eta horien artean dagoela gazteriaren prestakuntza eta sustapen integralarekin zerikusia duten mota guztietako jarduerak antolatzea, kudeatzea, ematea eta gauzatzea.

Azaldutako eskumenak garatzeko, Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak diru-laguntzak emateko hainbat oinarri arautzaile onartu zituen 2014ko maiatzaren 16an eta 2016ko apirilaren 15an. Oinarri horietan jasota ez dauden laguntza-ildo berriak garatzeko, oinarri arautzaile berriak egin behar dira, eta, beraz, egokia da Gazteriaren Foru Erakundearen esparruko diru-laguntzen lerro guztiak oinarri arautzaile bakar batzuetan berrikustea eta bateratzea.

Bestalde, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean erregistro elektronikoa buruz jasotako aurreikuspenak indarrean sartu ondoren, lege-erregulazioan sartu behar da eskaera modu elektronikoa izapidetzeko aukera, bai eta diru-laguntzen justifikazioan bitarteko elektronikoak erabiltzeko aukera ere.

Arazoi horiek direla-eta, beharrezkoa da foru-dekretu berri bat onartzea, Gazteriaren Foru Erakundearen eskumenen esparruan lehia araubidean ematen diren diru-laguntzei aplikatu beharreko oinarri orokorrak arautzeko.

Arabako Lurralde Historikoko Diru-laguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, 16. artikuluan, Gobernu Kontseiluari esleitzen dio Arabako Foru Aldundiaren, foru-erakunde autonomoen eta foru-partzuergoen eremuan diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzeko eskumena.

Xedapen orokor honen prestaketa Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuan jasotako erregulazio onaren printzipioetara egokitzen da. Foru Dekretu horrek xedapen orokorrak egiteko prozedura, arau-eraginari eta genero-eraginari buruzko txostenak egiteko gidak eta araugintza-teknikaren jarraibideak onartzen ditu.

Halaber, oinarri arautzaile orokor horiek bat datoz Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoarekin, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa betetzeari dagokionez, bai eta sexuaren ziozko bereizkeria mota oro berariaz debekatzeari dagokionez ere.

Nahitaezko txostenak aztertu dira.

Ondorioz, Kultura eta Kirol diputatuaren proposamenez eta Foru Gobernu Kontseiluak gaurko egunean egindako bilkuran aztertu ondoren, hauxe:

#### XEDATZEN DUT

Bakarra. Gazteriaren Foru Erakundearen eskumenen eremuan lehia-araubidean ematen diren diru-laguntzei aplikatu beharreko oinarri arautzaile orokorrak onartzea. Oinarri horiek dekretu honen eranskinean daude jasota.

Xedapen indargabetzailea. Xedapen hau indarrean jartzen denean, indargabeturik geratuko dira hark ezarritakoaren aurka doazen xedapen maila bereko edo beheragokoak, eta, bereziki, Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 16ko eta 2016ko apirilaren 15eko erabakiak, zeinen bidez dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onetsi baitziren.

Azken xedapena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduraren 28a

*Diputatu nagusia*

*RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE*

*Kultura eta Kirol Saileko diputatua*

*ANA DEL VAL SANCHO*

*Gazteriaren Foru Erakundearen Zuzendari-kudeatzailea*

*ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ*

## 1. ERANSKINA

### **Gazteriaren Foru Erakundeak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak**

#### **1. Xedea eta aplikazio-eremua**

1.1. Oinarri orokor hauen xedea da norgehiagoka-erregimenean eta lehia askearen araubidean diru-laguntzak ematea arautzea, Gazteriaren Foru Erakundeak laguntza-deialdi desberdinen bidez susta ditzakeenak, erabilgarri dauden aurrekontu-kredituen kargura eta esleitzen zaizkion eskumenen esparruan. Deialdi horiek oinarri orokor hauen, laguntza-deialdi bakoitzerako onartzen diren oinarri espezifikoaren eta gainerako araudi aplikagarriaren bidez arautuko dira.

1.2. Diru-laguntzak honako laguntza-ildo hauei aplikatuko zaizkie:

– Arabako gazteek eta gazteentzat sortutako proiektuak, honako arlo hauekin lotuta: berrikuntza, arte-sormena, parte-hartzea, gizarte- eta landa-garapena, emantzipazioa, ekintzailetza eta/edo ingurumena.

– Etengabe egiten diren aisialdiko jarduerak.

– Udako jarduerak.

– Aisialdiko begiraleentzako eta zuzendarientzako ikastaroak.

– Programa zehatzak edo apartekoak.

– Materialerako.

– Ikasketak egiteko bizitokia ez den beste udalerrri batera joateko gastuak.

– Gazteriaren Foru Erakundeari esleitutako eginkizunekin zerikusia duten programa edo jarduerari buruzko beste edozein lerro, oinarri arautzaile berezirik behar ez duena.

1.3. Deialdiak honako hauek jasoko ditu:

a. Hala badagokio, oinarri arautzaileak ezartzen dituen xedapenaren adierazpena eta zein ALHAOn argitaratu den, non eta haien espezifikotasuna dela-eta deialdian bertan sartzen ez diren.

b. Diru-laguntza zein aurrekontu-kredituri egotziko zaion eta kreditu erabilgarrien barruan deitutako diru-laguntzen gehieneko zenbateko osoa edo, halakorik ezean, diru-laguntzaren zenbateko zenbatetsia.

c. Diru-laguntzaren xedea, baldintzak eta helburua.

d. Emakida norgehiagoka-araubidearen edo lehia askearen araubidearen bidez ematen dela adierazten duen adierazpena.

e. Diru-laguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatzeko modua.

f. Baldin eta prozedura izapidetzeko eta ebazteko eskumena duten organoak zein diren adierazten bada.

g. Eskariak aurkezteko epea.

h. Ebazteko eta jakinarazteko epea.

i. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak eta informazioak.

j. Hala badagokio, eskabideak birformulatzeko aukera, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorren 27. artikuluan eta Arabako Lurralde Historikoko diru-laguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauaren 25. artikuluan xedatutakoaren arabera.

k. Ebazpenak administrazio-bidea amaitzen duen adieraztea eta, hala ez bada, gora jotzeko errekurtoa zein organori aurkeztu behar zaion.

1. Eskabidea baloratzeko irizpideak. Irizpide horiek bermatu egin beharko dute objektibotasuna, berdintasuna, gardentasuna, publizitatea eta diskriminaziorik eza diru-laguntzak ematean, eta irizpide horien haztapenean kontuan hartuko da proiektatutako jarduera diru-laguntzaren helburuaren lorpenari egokitzen zaion, kontuan hartuta, besteak beste, aurkeztutako proiektuaren edo egindako jardueraren kalitatea, esperientzia edo ibilbidea, berrikuntza, bideragarritasun-baldintzak edo, oro har, diru-laguntzaren helbururako egokitzat jotzen den deialdian ezarritako edozein alderdi. Gainera, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikulua arautzen duen moduan, hala dagokionean, esleipen-irizpideen artean sartuko da genero-ikuspegia txertatzea diruz lagundutako proiektuan edo jardueran, bai eta erakunde eskatzaileek emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken edo jarduketan garapenean izan duten ibilbidea ere.

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 24. artikulua arabera, administrazio publikoak sustatu beharko du elkarte eta erakunde profesionalen, enpresa, gizarte ekonomia, sindikatu, politika eta kultura arloko erakundeen eta bestelakoen zuzendaritza organoetan gizon eta emakumeen kopuru orekatua egon dadila. Horretarako, egoki denean, dirulaguntzen deialdietan txertatu ahal izango dira emakume gutxiegi dauden zuzendaritza organoetan emakumeen presentzia gehitzea ahalbidetzeko neurriak.

m. Jakinarazteko edo argitaratzeko modua, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera.

## 2. Printzipio orokorrak

Ematen diren diru-laguntzak honako printzipio hauen arabera kudeatuko dira:

- Publizitatea, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
- Eraginkortasuna finkatutako helburuak betetzean.
- Eraginkortasuna Gazteriaren Foru Erakundearen baliabideak esleitzean eta erabiltzean.

### 3. Onuradunen betekizun orokorrak

3.1. Onuradun izango dira diru-laguntza ematea zilegi egiten duen egoeran dauden pertsona fisiko edo juridikoak, edo oinarri arautzaile hauetan eta deialdian aurreikusitako inguruabarrak betetzen dituztenak, eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Arabako Lurralde Historikoko diru-laguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.

3.2. Diru-laguntza eman eta ordaindu aurretik, eskatzaileek betekizun hauek bete beharko dituzte, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 11. eta 13. artikuluetan eta Arabako Lurralde Historikoko diru-laguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 10. eta 12. artikuluetan aurreikusitako baldintzez gain:

- Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea, 58/2004 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera hori egiaztatetik salbuetsita ez badaude. Hori egiaztatzeko, erakunde eskudunek emandako egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte. Hala ere, eta aukera teknikoek eta baimenek ahalbidetzen badute, Gazteriaren Foru Erakundearen arduraren izango da Foru Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ziurtagiri horiek eskatzea. Laguntzen eskaera aurkezteak berekin ekarriko du organo kudeatzaileari baimena ematea aipatutako ziurtagiriak eskatzeko, behar beste aldiz.

- Pertsona juridikoen kasuan, legez eratuta egon beharko dute, eta diruz lagunduko den jarduera egiteak pertsona horien xedearekin edo helburu sozialekin zuzeneko lotura izan dezala eskatuko zaie.

3.3. Ez dira onuradun izango Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak IV. titulu adierazitako arau hausteren bat dela-eta zehatu direnak, ez eta, dagokion zehapenean ezarritako aldian, sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik administrazio zehapena edo zehapen penala jaso dutenak ere, hala xedatzen baitute Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak.

Nolanahi ere, eta dagokion deialdian jasotako bazterketak alde batera utzi gabe, diru-laguntzen aplikazio-eremutik kanpo geratuko dira honako hauek ere:

- Estatuaren edo autonomia erkidegoaren menpekoak direnak eta beste administrazio batzuen eskumenekoak diren erakunde, elkarte edo gazte-taldeak.

- Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuan diru-laguntza izendunak dituztenak, baldin eta diru-laguntzaren helburuarekin bat badatoz.

- Aurreko ekitaldian onartutako diru-laguntzak erregularizatuta ez dituztenak.

- Eskola-orduetan egiten diren jarduerak edo eskola-programen osagarri direnak.

- Beste sail edo erakunde ofizial batzuek kultura- edo kirol-izaeragatik eta abarregatik aintzat hartzen dituzten jarduerak edo programak."

- Erakundeen ohiko funtzionamenduari dagozkion ohiko proiektu puntualak (kanpalekuak, udalekuak, udako eskolak, etab.), baldin eta oso osagai berritzailea ez badute eta ohiko proiektuetatik argi eta garbi bereizten ez baditu.

- Eragin sozial garrantzitsurik ez duten eta gazteen garapen sozial, kultural edo ekonomikoan eragin garrantzitsurik eta zuzenik ez duten proiektuak.

- Irabazi-asmoa edo merkataritza-alderdia duten proiektuak.

- Erakundeari edo eskatzaileari ia modu esklusiboan eragiten dioten proiektuak.

- Kalitate nahikorik ez duten proiektuak, edo ondo definituta ez dauden helburuak eta plan-teamendua.

3.4. Gazteriaren Foru Erakundeak sustatutako aurreko deialdietan diru-laguntza jaso zuten eskatzaileak onuradun izateari utzi ahal izango diote, baldin eta bere garaian diruz lagundutako proiektu edo jarduerak egin ez badituzte, salbu eta zuzendaritzaren ustez horiek ez gauzatzeko arrazoiak behar bezala justifikatu badira.

3.5. Deialdian zehaztuko dira diru-laguntza lortzeko beharrezkoak diren betekizun espezifikoak eta horiek egiaztatzeko modua.

#### **4. Aurretiatzko izapidetzea eta urte anitzeko diru-laguntzak**

4.1. Deialdia ebatzi behar den aurrekontu-ekitaldiaren aurreko aurrekontu-ekitaldi batean onartu ahal izango da deialdia, baldin eta gastua diru-laguntza ematen den urte berean gauzaten bada, eta baldintza hauetakoren bat betetzen bada:

a) Arabako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorretan diru-laguntza ematetik eratorritako gastuaren aurrekontuari aurre egiteko kreditu egokia eta nahikoa izan ohi duena, edo,

b) Kreditu egokia eta nahikoa izatea hurrengo ekitaldiari dagokion aurrekontu-proiektuan, zeinean gastu-konpromisoa hartuko baita emakida-ebazpena onartzearen ondorioz.

Kasu horietan, deialdian agertzen den gehieneko zenbateko osoa gutxi gorabeherakoa izango da, eta, beraz, berariaz adierazi beharko da diru-laguntza emateko garaian kreditu egokia eta nahikoa egon behar dela. Azkenean onartutako aurrekontu-kreditua hasieran kalkulaturako zenbatekoa baino handiagoa bada, organo kudeatzaileak hura deialdiari aplikatzea edo ez aplikatzea erabaki ahal izango du, ebazpena eman aurretik dagokion gastu-espeditentia izapidetu ondoren, beste deialdi bat egin beharrik gabe.

4.2. Halaber, diru-laguntza emateko ebazpena ematen den ekitaldiaren ondoko ekitaldiei egotz dakiekeen gastua duten diru-laguntzen deialdia baimendu ahal izango da. Kasu horretan, deialdian adierazi beharko da eman daitekeen gehieneko zenbatekoa, bai eta urteka nola banatuko den ere, ematen diren diru-laguntzetatik eratorritako gastua noiz egitea aurreikusten den kontuan hartuta.

#### **5. Eskabideen aurkezpena eta epea**

5.1. Eskabideak dagokion deialdian adierazten den moduan aurkeztuko dira. Honako hauek izan daitezke:

- Modu elektronikoan, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen erregistro elektronikoan, deialdian hala aurreikusten denean.

- Gazteriaren Foru Erakundearen Erregistro Orokorrean edo itunpeko udaletako erregistro orokorretan aurrez aurre.

- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan jasotako gainerako erregistroetako edozein.

- Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek daude behartuta aurkezpen telematikoa egitera, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez edo beste administrazio publiko batzuen erregistro elektronikoaren bidez: pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak, nahi-taez elkargoko kide egin behar den lanbide-jarduera bat egiten dutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harreman elektronikoak izatera behartuta dagoen interesdun baten ordezkariak.

5.2. Deialdi espezifikoan hala adierazten bada, Gazteriaren Foru Erakundeak diseinatutako ereduetan egin beharko dira eskabideak, eta eskatzen den dokumentazio osagarria erantsiko zaio.

5.3. Eskabideak aurkezteko epea deialdi bakoitzean ezarritakoa izango da, eta ezingo da izan hamabost egun naturaletik beherakoa, deialdiak ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

5.4. Aurkeztutako eskabideekin batera ez bada eskatutako dokumentazioa aurkezten edo emandako informazioa ez bada nahikotzat jotzen, interesdunari 10 egun balioduneko epea emango zaio dagokion dokumentazioa aurkezteko. Eskatzaileak ez badu eskatutako dokumentazioa adierazitako epean bidaltzen, eskaerari uko egin diola ulertuko da, eta laguntza ukatu egingo zaio.

5.5. Eskabide bat behar bezala beteta dagoela ulertuko da, baldin eta bertan eskabide-inprimakietan eskatzen diren agiri guztiak badaude eta proiektuari buruzko informazioa, zuzendaritzaren iritziz, nahikoa bada aztertu eta ebaluatu ahal izateko.

5.6. Jakinarazpenetarako, Gazteriaren Foru Erakundeak Arabako Foru Aldundiko Kontabilitate Zerbitzuko hirugarrenen datu-baseetan edo erregistroetan agertzen den helbidea erabiliko du. Eskatzailearen helbideari eta banku-kontuko datuei dagokienez, bereziki, datuetan izan den edozein aldaketaren berri eman beharko dio espresuki zuzendariari.

5.7. Diru-laguntzak jasotzeko eskabideak aurkezteak berekin dakar oinarri orokor hauetan zein dagokion deialdiko espezifikoetan ezarritakoa berariaz eta formalki onartzea.

5.8. Gazteriaren Foru Erakundeak laguntza izapidetzeko edozein fasetan emandako datuak egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio guztia eskatu ahal izango dio eskatzaileari, bai eta diruz lagunduko den proiektu edo jarduketari buruzko beste edozein dokumentazio osagarri ere.

## **6. Organo eskudunak eta ebazpena diru-laguntza emateko prozeduran**

6.1. Deialdian adierazten den Gazteriaren Foru Erakundeko zuzendaritza-gerentzia izango da prozedura bideratzeko organo eskuduna.

6.2. Balorazio-batzorde batek aztertuko ditu eskabideak. Gazteriaren Foru Erakundeko zuzendaritza-gerentziako titularra izango da batzordeburua, eta gutxienez bi gazteria-teknikari eta Zerbitzu Orokoretako teknikaria izango dira batzordekide. Idazkaritza Teknikoko burua izango da idazkaria, eta hitza izango du, baina botorik ez.

Balorazio-batzordeak laguntza-deialdi bakoitzean ezartzen diren irizpideen arabera baloratuko ditu aurkeztutako eskabideak eta proiektuak edo jarduerak, eta haien arteko lehenetasuna ezarriko du. Lehenetasun horretan oinarrituta, eskatutako proiektu edo jarduera bakoitzeko esleipenak proposatuko zaizkie aipatutako irizpideak aplikatuz baloraziorik handiena lortu dutenei, deialdian kreditu erabilgarriaren barruan ezarritako mugarekin. Muga horretara iritsitakoan, eskatutako proiektuak edo jarduerak ukatzea proposatuko da, deialdietan ezarritako helburu eta baldintza orokorretara egokitu daitezkeen arren.

Azken puntuazio-tarteari dagozkion esleipenak, erabilgarri dagoen aurrekontua agortzen dutenak, proiektu edo jarduera bakoitzean diruz lagun daitezkeen aurrekontuaren arabera erabilgarri dagoen soberakina hainbanatuz egingo dira.

Era berean, dagozkien deialdietan, diruz lagundu daitezkeen aurrekontuei aplikatuko zaizkien diru-laguntzen ehunekoak finkatu ahal izango dira, esleitu beharreko diru-laguntza kalkulatzeko.

Salbuespen gisa, deialdietan hala aurreikusten denean, onuradunen artean hainbanatzeko aukera onartu ahal izango da, eskatutakoaren eta diru-laguntzara bideratutako gehieneko zenbateko globalaren arteko soberakinaren ehunekoan.

Balorazio-batzordeak, diru-laguntza jasoko duten proiektu edo jarduketa eskatzaileak proposatzeaz gain, onuradun izateko oinarri arautzaileetan ezarritako baldintza administratibo eta teknikoak bete arren, ezarritako kredituaren gehieneko zenbatekoa gaingiditzeagatik onartu ez diren eskabide guztien zerrenda ordenatu bat sartu beharko du.

Kasu horretan, pertsona edo erakunde onuradunen batek diru-laguntzari uko egiten badio, diru-laguntza ematen duen organoak erabakiko du, beste deialdi bat egin beharrik gabe, puntuazioaren arabera hurrengo dagoenari ematea diru-laguntza, betiere onuradunetako batek uko egiten badio, gutxienez, ukatutako eskabideetako bati erantzuteko kreditu nahikoa liberatu bada.

Balorazio-batzordeak organo instruktoreari helaraziko dizkio balorazioaren emaitzak, ebazpen-proposamenarekin batera.

6.3. Balorazio Batzordeari laguntzeko batzorde tekniko bat izendatu ahal izango da, deialdiak hala jasotzen duenean, eskaerak berrikusi eta aztertzeko. Batzorde hori osatzen dutenek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean jasoriko abstentzio inguruabarretan ez daudela egiaztatzeko, konfidentzialtasuna bermatzeko, deialdi honetako irizpideekin bat eginez aurkeztutako dokumentazioa proiektuak baloratzeko ez den beste helburu baterako erabiliko ez dutela adierazteko, eta ebazpen proposamena eman ondoren espedienteetako dokumentazio guztia suntsiarazi edo, dokumentazioa jatorrizkoa bada, prozeduraren instrukzio organoari itzuliko diotela jakinarazteko. Izendapen horiek zuzendaritza-kudeatzailetzaren ebazpen baten bidez onetsiko dira, eta ebazpen hori argitara emango da, interesdunek errefusatzeko duten eskubidea baliatu ahal izan dezaten, legez ezarritako egoera eta baldintzetan.

6.4. Diru-laguntza emateko prozedura lehia askea denean, eskabideak jaso ahala banatuko dira funtsak, betiere deialdian ezarritako baldintzak betetzen badituzte, aurrekontu-zuzkidurek horretarako aukera ematen duten arte.

6.5. Organo eskudunak dagokion ebazpena emango du, eta behar diren betekizunak edo baldintzak zehaztuko ditu.

6.6. Ebazpenak Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitakoaren arabera jakinaraziko dira.

6.7. Organo eskudunak, organo instrukzio-egileak proposatuta, dagokion ebazpena emango du, deialdia ALHAOn argitaratu eta gehienez ere sei hilabeteko epean. Gehieneko epea igaro eta ebazpen espresurik eman ez bada, pertsona eta erakunde interesdunek ulertu ahal izango dute eskabidea ezetsi egin dela.

6.8. Ebazpena aldekoa bada, honako hauek adierazi beharko dira: diru-laguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, ukitutako programa edo jarduera, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta diru-laguntza emateko baldintzak. Onuradunei horren berri emango zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan xedatutakoaren arabera.

6.9. Diru-laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako moduan jakinaraziko zaie pertsona edo erakunde eskatzaileei.

6.10. Ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. artikuluan aurreikusitakoaren arabera (29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena). Horretarako, bi hilabeteko epea izango da, ebazpena jakinarazten denetik hasita.

Zuzenean aurkaratzen ez bada, berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio ebazpena eman zuen organoari, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

### **7. Diru-laguntzen gehieneko eta banakako zenbatekoa, guztira**

7.1. Deialdiek, diru-laguntzaren helburua kontuan hartuta, diru-laguntzaren banakako zenbatekoa, gehieneko zenbateko osoa eta aurrekontu-partida jasoko dituzte. Deialdiaren laguntza-lerro bakoitzean sor daitezkeen soberakinek ekitaldi beraren barruan beste edozein lerro handitu ahal izango dute.

7.2. Ezin bada zehaztu, deialdiak zehaztuko ditu hura zehazteko irizpide objektiboak, eta, hala badagokio, irizpide horiek haztatuko ditu, diru-laguntzaren xedera egokituta, eta horien artean nahitaez sartuko da aurrekontu-baliabideak kontuan hartzea.

7.3. Diru-laguntzen zenbatekoa, bakarka hartuta edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrerera edo baliabide batzuekin batera, ezin izango da diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan.

74. Diru-laguntzaren banakako zenbatekoa zehazteko, eskatzaileak aurkeztutako proiektu edo jarduera bakoitzerako zenbatetsitako kostua hartuko da abiapuntutzat. Kostu horretatik kendu egingo dira deialdiaren baldintzetara egokitzen ez diren partidak edo deialdiaren helburuetara maila nahikoarekin laguntzen ez dutenak, betiere balorazio-batzordearen iritziz, eta, horrela, diruz lagun daitekeen aurrekontua lortuko da. Diru-laguntza kalkulatzeko, deialdeak finkatutako diru-laguntzaren ehunekoak aplikatuko zaio diruz lagun daitekeen aurrekontuari, bai eta aurreko paragrafoan aipatzen diren gehieneko mugak ere.

75. Laguntzen eraginkortasuna bermatzeko, deialdi bakoitzean finkatu ahal izango da diruz lagundu daitekeen proiektu edo jarduketa bakoitzeko lortu beharko den gutxieneko diru-laguntzaren zenbatekoa, bai eta diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren zenbatekoa ere, diru-laguntza jaso dezaten.

76. Era berean, eta laguntzak onuradun gehiagorengana iritsi ahal izateko, deialdi bakoitzak jarduera edo gastu jakin batzuetarako aurrekontu-mugak ezarri ahal izango ditu, muga horiek laguntzen eraginkortasunari eragin gabe.

77. Diru-laguntzen oinarri arautzaileek moduluen bidez emateko eta justifikatzeko araubidea aurreikusi ahal izango dute, honako baldintza hauek betetzen diren kasuetan:

a) Baldin eta diruz lagundu daitekeen jarduera edo jarduera egiteko behar diren baliabideak unitate fisikoetan neur badaitezke.

b) Baldin eta diruz lagundu daitekeen jardueraren edo, hala badagokio, erabili beharreko baliabideen merkatu-balioaren ebidentzia edo erreferentzia badago.

c) Moduluen zenbateko unitarioa – Zati finko bat eta jarduera-mailaren araberako beste zati aldakor bat eduki ahal izango ditu – Txosten tekniko arrazoitu batean oinarrituta zehaztea. Txosten horretan, modulua zehazteko kontuan hartu diren aldagai tekniko, ekonomiko eta finantzarioak jasoko dira, diru-laguntzaren xede den jarduera edo zerbitzua egiteko zenbatetsitako merkatuko batez besteko balioetan oinarrituta.

Oinarri arautzaileek moduluen bidezko emate- eta justifikatze-erregimena aurreikusten dutenean, horiek zehaztea eta txosten teknikoa egitea deialdi bakoitzerako modu bereizian egin ahal izango da.

## **8. Diruz lagun daitezkeen gastuak**

8.1. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak eta diru-laguntzen deialdietan ezarritako epean egiten direnak.

8.2. Diru-laguntzaren helburua kontuan hartuta, deialdi bakoitzak diru-laguntzaren onuradunen mantentze- eta funtzionamendu-gastu orokorren zenbateko bat ezarri ahal izango du, eta gastu horiek ez dira justifikatu beharko.

8.3. Diruz lagundu daitezkeen proiektuak, jarduerak, gastuak edo ordainketak egiteko epea deialdi bakoitzean zehaztuko da.

8.4. Ez dira inola ere diruz lagunduko honako gastu hauek:

a) Banku-kontuen interes zordunak.

b) Interes, errekargu eta zehapen administratibo eta penalak.

c) Prozedura judizialen gastuak.

Tributuak diruz lagundu daitezkeen gastuak dira, diru-laguntzaren pertsona edo erakunde onuradunak benetan ordaintzen dituenen.

Zeharkako zergak ez dira inola ere diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko, baldin eta berreskuratutako edo konpentsatu badaitezke, ez eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

8.5. Diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 31. artikulua 3. paragrafoan ezarritako zenbatekoak gainditzen dituzenean, onuradunak hornitzaile desberdinen gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko ditu zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta diruz lagun daitezkeen gastuen ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago zerbitzua ematen edo ematen duen behar adina erakunde, edo salbu eta gastua lehenago egin bada.

Aurkeztutako eskaintzen artetik aukeraketa egiteko (diru-laguntzaren eskabidearekin batera aurkeztu beharko dira), efizientzia- eta ekonomia-irizpideak erabiliko dira, eta berariaz justifikatu beharko da memoria batean, proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean.

8.6. Deialdietan, azpikontratatzeko aukera eta azpikontratazioen mugak zehaztuko dira, diru-laguntzei buruzko legean eta haren erregelamenduan ezarritako baldintzak eta debekuak errespetatuz.

### **9. Ordainketak**

9.1. Oro har, diru-laguntza ordaintzeko, onuradunak alde aurretik justifikatu beharko du eman zaion proiektu edo jarduera hori egin duela, deialdi bakoitzean ezarritako baldintzetan.

9.2. Hala ere, dagozkion deialdietan ordainketa aurreratuak egiteko aukera jaso ahal izango da, Arabako Lurralde Historikoko Diru-laguntzen eta Transferentzien Foru Araudian ezarritakoaren arabera. Ordainketa aurreratu horiek justifikazioaren aurretik funtsak ematea ekarriko dute, diru-laguntzari datxekion jarduerak gauzatu ahal izateko finantzaketa gisa, eta justifikatu beharreko aurrerakin gisa ordainduko dira. Ez da aurrerakin onartuko diru-laguntza berrien kargura, baldin eta onuradunak ezarritako epean ez badu justifikatu edozein laguntza-lerrotatik jaso ahal izan dituen beste aurrerakin batzuk.

Oinarri arautzaileek konturako ordainketak edo ordainketa aurreratuak egiteko aukera jasotzen dutenean, emandako funtsen berme-araubide bat ezarri ahal izango da.

9.3. Deialdi bakoitzean zehazten den epean eta moduan onartuko da diru-laguntza ordaintzeko betebeharra, eta, hala badagokio, aurreko paragrafoan aipatzen diren balizko aurrerakinen kenkaria aplikatuko da. Aurrerakinak justifikatuzat joko dira, baldin eta behar bezala dokumentatu badira.

9.4. Ezin izango da ordainketa egin onuradunak Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean ez baditu.

### **10. Diru-laguntza aldatzea**

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, eta, nolana ere, beste edozein erakunde publiko nahiz pribatutatik diru-laguntza edo laguntza gehiago lortzen bada, diru-laguntza emateko ebazpena aldatu egingo da, eta laguntzaren zati bat itzuli beharko da. Behin diru-laguntza onartuta, diru-laguntza ematea eragin zuten egitatezko zirkunstantziak hura aldatzea eragin badezakete, onuradunaren proposamen arrazoituaren bidez, organo eskudunak hura aldatu ahal izango du dagokion ebazpenaren bidez.

### **11. Justifikatzeko epea eta modua**

11.1. Diru-laguntzen onuradunek, deialdi bakoitzean adierazitako epean, organo instruktorearen aurrean justifikatu beharko dute ezarritako baldintzak betetzen dituztela eta diru-laguntza emateko egintzan aurreikusitako helburuak lortu dituztela.

11.2. Oro har, pertsona edo erakunde onuradunak egindako justifikazioa justifikazio konfuzat joko da, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Arautegia (hemendik aurrera dirulaguntzen arautegi orokorra) onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 72. artikuluan aipatzen diren gastuen egiaztagiriak aurkeztuz.

Arau orokor gisa, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduaren 72. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hauek aurkeztu beharko dira:

a) Diruz lagundutako jarduera edo jarduerak egiteak eragindako gastuen justifikazioa, behar bezala zerrendatua, diru-laguntza kalkulatzeko oinarritzat hartutako gastu-aurrekontuaren zenbateko osoari dagokiona, fakturak eta trafiko juridiko merkantilean froga-balio baliokidea duten edo administrazio-eraginkortasuna duten gainerako dokumentuak (jatorrizkoa edo fotokopia konpultsatua) aurkeztuta, deialdi bakoitzaren oinarrietan hala ezarri bada. 500,00 eurotik gorako gastuen fakturen kasuan, horiek ordaindu direla egiaztatu beharko da.

Gastuen justifikazio gisa ez dira onartuko honako datu hauek argi eta garbi identifikatuta ez dituzten fakturak eta/edo ordainagiriak:

- Igorlea, izena edo izen soziala eta NAN edo IFZ adierazita.
- Hartzailera, izena edo izen soziala eta NAN edo IFZ adierazita.
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Faktura-zenbakia.

Era berean, ez dira justifikazio-gastu gisa onartuko PFEZren konturako atxikipenen arloko zerga-araudia betetzen ez duten fakturak edo ordainagiriak (pertsone fisikoen errentaren gaineko zerga).

Fakturak ordaindu izana egiaztatzen duen dokumentazioari dagokionez, ordainketa frogagiri gisa onartuko dira honako hauek, zeinek aukera emango baitute argi eta garbi identifikatzeko onuradunak, ordaindutako zenbatekoak jasotzen dituen hirugarrenak eta ordainketa data (balio data) edo onuradunaren funtsen benetako irteera:

– Transferentzia edo konturako ordainketa: Banku erakundearen egiaztagiria, egindako transferentzia aginduarena edo onuradunaren kontu korrontearen laburpenarena (pantaila irudia), non egindako transferentziaren kargua jasoko baita (banku logoarekin edo banku erakundeak zigilatua). Dokumentazio horren ordez egiaztagiri bat (edo antzekoa) aurkeztu ahalko da, bankuak egina; han agertuko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren pertsona edo erakunde onuraduna eta transferentziaren kontzeptua (faktura zk. edo eragiketaren deskribapena).

– Jatorrizko faktura egiten duenaren ziurtagiri sinatua eta/edo zigilu estanpatuarekin, fakturaren zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa-data zehaztuta.

– Posta arruntez jasotako jatorrizko banku-laburpenak.

– Kontu korronteetako libreten kopia konpultsatua, dagozkien mugimenduekin.

– Erosketa-tiketak, jatorrizkoak izanda zenbatekoa ordaindu dela adierazten dutenak (merkataritza-gunea, autobidea, bidai-txartelak, etab.) edo faktura originalak, faktura egin duen enpresaren zigiluarekin, ordaindu direla zehazten dutenak.

Ez dira onartuko eskudirutan egindako ordainketak, baldin eta eragiketa horien zenbatekoa ekitaldi bakoitzerako indarrean dagoen araudian ezarritakoaren berdina edo handiagoa bada, edo atzerri-monetan duten kontrabalioa.

Aurreko lerrokadan adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, ondasunen entrega edo zerbitzuen prestazioa zatikatu ahal izan den eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

Diru-laguntza kalkulatzeko oinarritzat hartutako gastuen guztizko aurrekontua justifikatzen ez bada, erabilitako gastu txikiaren proportzio berean murriztuko da diru-laguntza.

b) Bestetik, diruz lagundutako jardueraren edo jardueren gastuen eta diru-sarreraren balantzea.

c) Diruz lagundutako jarduera edo jardueren memoria, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duena, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak, eta esku hartzearen esparruan, emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko egindako berariazko jarduera edo jarduketak adieraziz, baldin baleude. Diruz lagundutako jardueran pertsonak parte hartzen badute, sistematikoki sexuaren aldagaia barne hartu beharko da memorian emandako informazioan. Horrela, datuak bereizita emango dira, emakume eta gizonen partaidetzan dau-den aldeak ikusi ahal izateko. Bestalde, ahal den neurrian, datu horiek azalduko dira, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 16. artikulua eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 20. artikulua arautzen duten moduan.

d) Hala badagokio, diruz lagundutako jardueraren dokumentazio grafikoa, fotografikoa edo ikus-entzunezkoa (programak, iragarki-kartelak, liburuxkak, argazkiak, bideoak...). Dokumentazio horretan, hizkuntza eta irudiak berdintasunez eta sexismorik gabe erabiliko dira, eta, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak ere erabili beharko dira. Era berean, Gazteriaren Foru Erakundearen irudi korporatiboa behar bezala erabili beharko da.

e) Eskatutako hiru aurrekontuak, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 31.3 artikulua eta Arabako Lurralde Historikoko diru-laguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauaren 29.3 artikulua aplikatuz.

f) Hala badagokio, gastuen zerrendan sartutako kostu orokorrak eta/edo zeharkakoak banatzeko irizpideen adierazpena, a) idatz-zatian aipatutakoa, salbu eta diru-laguntzaren oinarri arautzaileek oroharreko zenbateko baten bidez konpentsatzea aurreikusi badute, justifikatu beharrik gabe.

g) Hala badagokio, itzulketaren ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko gerakinen kasuan, bai eta horietatik eratorritako interesena ere.

11.3. 60.000 eurotik beherako diru-laguntzetarako, deialdian ezarri ahal izango da justifikazioa egiteko diru-laguntzen erregelamendu orokorraren 75. artikuluan araututako justifikazio-kontu sinplifikatua aurkeztea.

Justifikazio-kontu sinplifikatua honako hauek osatuko dute:

a) Jardunaren memoria, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duena, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak, eta esku hartzearen esparruan, emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko egindako berariazko jarduera edo jarduketak adieraziz, baldin baleude.

b) Jardueraren gastu eta inbertsio guztien zerrenda sailkatua, honako hauek adierazita: hartzekoduna den pertsona fisikoa edo juridikoa, gastu-agiriaren edo fakturaren zenbakia, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordaintze-data. Deialdi bakoitzaren oinarrietan zehaztuko da zenbateko zenbatekoa izango den, banaka edo batera, gastuen kontzeptu bere-rako. Zenbateko horretatik gora, jatorrizko fakturak edo dokumentu baliokideak edo fotokopia konpultsatutak eta dagozkien ordainketa-egiaztagiria aurkeztu beharko dira.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera eta diru-laguntza batzuen xehetasuna, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

d) Hala badagokio, itzulketaren ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko gerakinen kasuan, bai eta horietatik eratorritako interesena ere.

Organo instruktoreak, deialdietan erabakitako laginketa-tekniken bidez, egokitzen jotzen dituen egiaztagiria egiaztatuko ditu, diru-laguntza behar bezala aplikatu dela egiaztatzeko. Horretarako, hautatutako gastuen egiaztagiria bidaltzeko eskatu ahal izango die onuradunei.

11.4. Salbuespen gisa, diruz lagun daitezkeen jardueraren xedearen ondorioz unitate fisikoen edo beste parametro batzuen bidez neur daitezkeen jarduerak betetzen direla egiaztatzen de-nean, justifikazioa moduluen bidez egin ahal izango da, diru-laguntza ematea funtsatzen duten egitateak egiazkoak direla frogatzeko moduan, eta, hala badagokio, diru-laguntza ematea eragin zuen helbururako aplikatu dela frogatzeko moduan.

Diru-laguntza justifikatzeko, jarduera-memoria eta memoria ekonomikoa aurkeztuko dira, diru-laguntzei buruzko erregelamendu orokorraren 78.2 artikuluan aurreikusitako edukiarekin.

11.5. Diru-laguntzak justifikatzeko baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoen erabilera arautzen duen uztailaren 17ko EHA/2261/2007 Aginduan ezarritakoaren arabera, faktura elektronikoen erabilera onartuko da justifikatzeko bitarteko gisa.

Faktura elektronikoa aurkeztuz gero, faktura-e estandarren arabera izango da haien formatua. Elektronikoki sinatutako beste edozein dokumentu aurkeztuz gero, konfiantzazko zerbitzu elektronikoa ematen dituzten erakunde kualifikatuen konfiantzazko zerrendan jasotako ziurtagiriak onartuko dira <http://sede.minetur.gob.es/Prestadores>.

11.6. Laguntzak justifikatzeko dokumentazioa modu elektronikoan aurkezten bada Erregistro Elektronikoan (Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez eskura daiteke) edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2.1 artikuluan aipatzen diren subjektuetako edozeinen gainerako erregistro elektronikoetan, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, emandako dokumentazioarekin bat datorren eta jatorrizko egiaztagiriak aurkeztu direla egiaztatzen duen jatorrizko dokumentazioa aurkeztu dela egiaztatzeko. Adierazpen hori erakundeko legezko arduradunak sinatu beharko du.

Organo instrukzio-egileak, deialdietan erabakitako laginketa-tekniken bidez, egokitzen jotzen dituen egiaztagiriak egiaztatuko ditu, eta, horretarako, hautatutako jatorrizko gastuen eta ordaintzen egiaztagiriak bidaltzeko eskatu ahal izango die onuradunei.

11.7. Adierazitako epea amaituta aipatutako dokumentazioa aurkeztu ez bada, ordaintza-kredituak ezeztatuko dira, eta dagokion espedientea hasiko da "konturako entrega" kontzeptupean jasotako zenbatekoak itzultzeko.

## **12. Diru-laguntzen konkurrentzia eta bateragarritasuna**

12.1. Dagozkion deialdietan ezarriko da diru-laguntzen konkurrentzia- eta bateragarritasun-araubidea.

12.2. Laguntzen eskabidea aurkeztu ondoren beste laguntzaren bat jasoz gero, ahalik eta lasterren eta idatziz jakinarazi beharko zaio Gazteriaren Foru Erakundeari, eta hark emandako laguntzaren zenbatekoa edo baldintzak aldatzea proposatu ahal izango du.

12.3. Deialdian zehazten bada diru-laguntzak bateragarriak direla beste erakunde batzuek eman beharreko beste diru-laguntza batzuekin, diru-laguntza ematen duten erakunde publiko edo pribatuetatik jasotako laguntzen zenbatekoak ezin izango du gainditu diruz lagundutako jardueraren edo proiektuaren kostua, eta deialdi bakoitzean ezarriko dira dagozkion garapena eta mugak.

12.4. Diru-laguntza baten eskatzaileak helburu bererako bateraezina den beste bat jaso badu, inguruabar hori eskabidean jaso beharko da. Kasu horretan, diru-laguntzak emateko ebazpenak baldintza hau bete beharko du: onuradunak aldeztu aurretik lortutako diru-laguntzei uko egitea eta, hala badagokio, jasotako funts publikoak itzultzea.

12.5. Diru-laguntza eta horri dagozkion berandutze-interesak itzultzeko eskatu ahal izango da, baldin eta Gazteriaren Foru Erakundeak jakiten badu onuradun batek beste diru-laguntza bat edo batzuk jaso dituela, emandako diru-laguntzarekin bateragarriak ez direnak eta uko egin ez diotenak.

## **13. Babesak**

Diru-laguntzen onuradunek konpromisoa hartzen dute diruz lagundutako programa edo jarduera dela-eta argitara ditzaketen programa, iragarki-kartel, argazki eta gainerako material grafiko, idatzi edo soinuzkoetan berariaz adierazteko Gazteriaren Foru Erakundearen babesa dutela, eta Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dituzte.

Emandako dokumentu guztietan hizkera ez-sexista erabiliko dela bermatuko du diru-laguntzaren erakunde onuradunak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea betez. Lege horren babesean, argitara daitezkeen irudietan, pertsonak, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu-objektu soilak direla adieraziko da, estereotipo sexistak saihestuko dira eta sexu-dibertsifikazioa, rola eta genero-identitateak bultzatuko dira.

#### **14. Diru-laguntza itzultzea**

14.1. Arabako Lurralde Historikoko Diru-laguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritako kasuetan jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira.

14.2. Onartutako diru-laguntzatik jasotako zenbatekoak itzultzea zuzenbide publikoko diru-sarreratzat joko da, eta Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauaren II. tituluko I. kapituluan aurreikusitakoaren arabera kobratuko dira.

#### **15. Egiaztapena**

Gazteriaren Foru Erakundeak Administrazio Kontseiluko lehendakariak egokitzen dituen ebazpenak emango ditu hurrengo deialdiak eta, hala badagokio, oinarri hauek garatzeko, Zuzendaritza-gerentziaren ekimenez, eta onuradunek emandako datuak egiazkoak direla eta oinarrietan araututakoa betetzen dela exijitzea eta egiaztatzea ahalbidetzen duten ekintzak gauzatu ahal izango ditu. Horretarako, erakunde onuradunek konpromisoa hartzen dute garatzen dituzten jarduerekin zerikusia duten eta Gazteriaren Foru Erakundeak eskatzen dituen datu eta dokumentu guztiak emateko. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontu Auzitegiak edo beste erakunde eskudun batzuek eskatutako informazio guztia eman beharko dute.

#### **16. Erantzukizunak**

Onuradunek beren gain hartuko dituzte programa eta/edo jarduera egiteko erator daitezkeen erantzukizunak, eta programa edo jarduera hori garatzeko indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen baimenak eskatuko dituzte.

#### **17. Datu pertsonalen babesa**

17.1. Horretarako dagoen araudia betez, laguntzen onuradunei edo haien ordezkariari buruzko datu pertsonalak fitxategi misto batean sartuko dira, Gazteriaren Foru Erakundeak esleituta dituen eskumenen esparruan laguntza horiek kudeatzeko berezko funtzioak eta zereginak betetzeko. Era berean, jakinarazten da datu pertsonalak ez zaizkiela hirugarrenei jakinaraziko, legez gaitutako kasuetan izan ezik.

17.2. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak aitortzen dituzten datuak eskuratzeko, ezerezteko eta zuzentzeko eskubideak baliatzei buruzko edozein kontsulta edo iruzkin pertsonal Gazteriaren Foru Erakundeak Datuak Babesteko ordezkariari bidali beharko zaio, deialdian zehazten den posta elektronikoko helbidean.

17.3. Aipatutako datuak fitxategian sartzei aurka egiteko eskubideak berekin ekarriko du laguntzak ukatzea.

#### **18. Ez-betetzea**

18.1. Pertsona eta erakunde onuradunek laguntzen deialdietan eta oinarri orokor hauetan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, laguntza ezeztatu ahal izango da, eta, diru-laguntza ordaindu bada, erakundeak diru-laguntza itzuli beharko du, Gazteriaren Foru Erakunde honek indarreko legediaren arabera zehazten duen moduan.

18.2. Gazteriaren Foru Erakundeak dagozkion lege-ekintzak gauzatu ahal izango ditu dekretu honetan ezarritako laguntzen administrazio-ebazpenetan ezarritakoa larriki betetzen ez den kasuetan, bai eta bete beharreko ziurtagiri eta aitopenak faltsuak direnean ere.

#### **19. Interpretazioa**

Oinarri hauen interpretazioaren inguruan sor daitekeen edozein zalantza Gazteriaren Foru Erakundeak ebatziko du.

#### **20. Doikuntza teknikoak**

Deialdi bakoitzaren esparruan diruz lagundu ahal izango dira deialdiaren beraren aurreko ekitaldietan aurkeztutako proiektuak eta/edo jarduerak, Gazteriaren Foru Erakundeak Zuzendaritzak berrikusi ondoren, beharrezkotzat jotzen bada egokitzapen teknikoak egitea, horiek behar bezala eta behin betiko ixteko.

#### **21. Aplikatu beharreko araudia**

Oinarri hauek ez xedatutakoa hauek arautuko dute: urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Arautegia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; Arabako Lurralde Historikoko Aurrekontu Araubide Ekonomikoaren abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua; indarrean dagoen aurrekontua arautzen duen foru araua; Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta aplikagarri diren gainerako arauak.

#### **22. Errekurtsoak**

Oinarri hauek eta horietatik eratortzen diren administrazio-egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako kasuetan eta moduan.

#### **23. Indarrean jartzea**

Oinarri hauek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.